

A large pink speech bubble containing the text "500 xZU" in white. The "500" is in a bold, rounded font, and "xZU" is in a stylized, outlined font. The bubble is surrounded by numerous small, colorful, 3D-style arrow-like shapes pointing outwards.

500
xZU

Hamaika urte, 500 ale; zuregandik jasotakoa, zuretzako idatzia

500. alea zenbaki esanguratsua dela-eta, tamaina bereko jaialdia egingo du 'Anboto'-k bihar, maiatzak 11, Durangon



Badira hamaika urteik gora *Erazen* erreleboa hartu eta lehenengo *Anbotoa* kaleratu zela. *Anbotora* ez bazoaz *Anboto etorriko* jatzu zioen hasierako leloak.

> AITZIBER BASAURI

Zuri esker bete da eskutan duzun *Anbotoren* 500. ale hau. Zenbaki borobila, berezia, zurekin partekatu gura duguna. Gertaera esanguratsua dela-eta, *Anbotok* tamaina bereko ospakizuna egin gura du bihar, maiatzak 11. Zurekin, euskaltzale guztiakin ospatzeko jaia da Durangon antolatutakoa, egun osorakoa.

Durangaldeko herritarren-gandik jasotakoa, herritarren-tzako idatzia. Badira hamaika urteik gora lehenengo *Anboto* hura kaleratu zela, *Erazi* erreleboa hartuta. *Anbotora* ez bazoaz, *Anboto etorriko* jatzu zioen orduko leloak; *500xzu* oraingo honek. Izan ere, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar-ko herritarrek dira *Anbotoko* protagonista. Durangaldean gertatutakoaren berri euskaraz eman du *Anbotok*, hizkuntzaren erabilera indartzeko ahalegina-

ren parte izan guran. Bide horretatik jarraitu gura du, euskara 365 egunean zabaltzeko.

Argazki rallya

500. alearen harira antolatutako jaiaren testigantza jasotzeko aukera ere eman gura du *Anbotok*. Hartara, guztioi zabalduko

Euskaltzale guztiakin ospatzeko jaia da biharko Durangon antolatutakoa, egun osorakoa

'Anbotora ez bazoaz, *Anboto etorriko* jatzu' zioen orduko leloak; '500xzu' oraingo honek

500xzu argazki rallyan parte hartzeko gonbita egin dute.

Anbotoren 500. alearen jaialdian ateratako argazkiak izan beharko dira, koloretan, eta gura beste argazki aurkeztu daitezke.

Hori bai, ezingo dira editatu edo aldatu, behin atera eta gero. Irabazleak 200 euro lortuko ditu.

Iurretako egoitzan aurkeztu daitezke argazkiak edo *astekaria@anboto.org* helbidera bidali;

maiatzaren 14a da azken eguna. Izen-abizenak, NAN zenbakia, herria eta telefono zenbakia ere zehaztu beharko ditu egileak. *Anbotoko* argazkilariek jardungo dute epaile lanetan.

'Anboto', euskaraz erein eta euskaraz jasotakoa



Durangaldeko euskara hutszeko hedabide bakarra da *Anboto*, eta urteetan proiektua babestu duten eragile, erakunde, elkarte, kolaboratzaile eta norbanakoen bul-tzadari esker, hazi ahala, sendotuz joan da. Durangaldeko postontzietara *Anboto* aste-kariaren 500. alea heldu dela aprobetxatuta, herrigintzatik sortutako hazi hura ekarri du gogora *Anbotok*, "herrigintza helburu sozialekin lotutako elkarlan moduan ulertuta". *Euskaraz erein, euskaraz jaso* leloa abiapuntu hartuta, murala margotu dute Durangoko Larrasoloeta kalean.



SERRATU, S.L. GALDARAGINTZA ETA ITXIERAK

ZORIONAK ANBOTO!

11 urte, 500 ale, milaka irakurle eta jarraitzaile...
eta aurrerantzean ere lortu beste hainbeste!

Astola, 48 - ABADIÑO - Tel.: 94 620 18 37 Fax: 94 681 86 35

Jasone Agirre eta Jone Guenetxea | Anbotoko presidentea eta zuzendaria

Kazetari bi Anbotoren gidaritzan

Jasone Agirre Anbotoko presidente eta zutabegileak eta Jone Guenetxea zuzendariak 500. alea dela eta ezohiko elkarrizketa egin dute

Jone Guenetxea: Aitorpen bategaz hasiko naiz. Zure zutabeak dira gogokoen ditudanak, 'Eraz'-en sasoitik. Ez dadila inor haserretu baina! Zelan idazten dituzu?

Jasone Agirre: Azkenengo momentuan idazten ditut. Hala ere, egia da ideia batzuk sortzen joaten direla. Arazoa da, ez ditudala apuntatzen, eta ahaztu egiten zaizkit. Zuk data gogorarazteko deitzen didazunean estutu egiten naiz! Ez zaidana gustatzen da adoktrinatzeko. Mezua bidaltzea. Galderak zabalik uztea gustatzen zait. Horrela dela sinisten dut, gauzak ez dira zuriak edo beltzak. Bestetik, Jone, argazkia aldatu beharko nuke. Hamaika urtean argazki berdinarekin gabilta. Beti gazte!

J.G.: 'Anboto'ko zuzendaritzan zaude. Zuk ETBn lan egiten duzu, baina. Zer ezberdintasun ikusten duzu herri mailako edo maila nazionalako hedabide baten artean?

J.A.: Nik zuri egingo nizuke galdera. Zuen lana konprometitua goa eta gaitzagoa ikusten dut. Sarritan, jendea ez da pozik geratzen, edo beste zer edo zer esperatu du. Guk tratatzen dugu jendearekin, baina bat Errenterikoa izan daiteke eta bestea, Sakana. Zuek, oster, auzokoari edo lehengusuaren lagunari buruz idazten duzue. Distantzia emozionala ere kontuan hartzekoa da. Ez da berdin Corrugadoseko auziaren berri ematea, edo Iketz eta San Eloyren inguruan idaztea, bertan lagunak edo senitarteak izan ditzakezulako.

J.G.: Argi dago gertutasuna gure lanaren parte dela, onerako eta txarrerako. Horregatik uste dut gure lana intentsitate handi bizi dugula. Asteburuan senitarteko eta lagunek 'Anboto'-n irakurri dutena komentatzen digute, edo baten batek kexa edo iradokizunen bat badauka, helarazi egiten digu. Horrek esan nahi du, Durangal-



deko herritarrek 'Anboto' estimatzen dutela, eta guk idazten dugunaren inguruan hausnartzen dutela. 500. aleko ekitaldia antolatzen ibili garenean, hainbat jenderengana hurreratu garenean, 'Anboto' euren legez sentitzen dutela esan digute, eta laguntzeko gogotsu agertu dira denak. Anne Igartiburuk edo Jose Luis Mendilibarrek, esaterako, erraztasun guztiak eman dizkigute 500. alerako egin ditugun bideoak grabatzeko. Oso pozik gaude jaso dugun erantzunarekin.

J. A.: 'Anboto' etxekoa da, eta konfiantza dagoenean, horixe gertatzen da. Nik ere esan beharra daukat poztasun handiagoa eman didala "Eraz"-en edo Anboto'-n lantzean behin idazten dudana zutabeak beharrak ematen dizkidanak baino. Jendearen aitortza jaso dut. Lanean egiten dudana informatiboagoa da, ez da

hain pertsonala. Zure barruan daramazunaren zati bat idazten duzu, eta baten bati gustatzen bazaio, zer gehiago gura duzu! Jende gehiagok ezagutzen nau 'Anboto'-n zutabeak idaztearren telebistan agertzearen baino. Eta hogeitaz hamar urte daramatzat ETBn. **J.G.:** Berbaro Taldean gogotsu dihardugu Berbaro elkarteagaz eta Plateruena kafe antzokiagaz. Asmatu dugu talde izaera horri zabalkunde ematen?

J.A.: Egia esan behar badizut, zuzendaritzan hasi arte taldetasun hori ez dut hain presente izan. Hala ere, indar txikiak batzea garrantzitsua da, eta euskalgintza eta herrigintza dihardugunean, are gehiago.

J.G.: Herri erakundeen aldetik, konpromisorik badago?

J.A.: Batetik, konpromisoa modu askotakoa izan daiteke. Ekonomikoa izan daiteke, eta ez dirudi dirua oso ugari dabilenik. Bes-

*Jasone Agirre:
"Poztasun handi-
goa eman dit
'Anboto'-n idazten
dudan zutabeak
beharrak baino"*

tetik, 'Anboto' erreferentziatzeko komunikabide bat da Durangaldean, eta horri aitortza bat eman behar zaio erakundeetatik ere. Ez dakit erakunde guztiek 'Anboto' beste komunikabideen aurrean lehenesten duten. Gainera, jende gehien ordezkatu dezakeen komunikabidea 'Anboto' dela deritzot. Zuzendari moduan ez da erraza izango presio politikoaren aurrean oreka mantentzea, ezta?

J.G.: Nik ezagutzen dudantetik, denetarik dago politikan. 'Anboto'-n, maila politikoan, unean uneko kritikak jaso izan ditugu alde guztietatik. Une horiek gogorrak izan arren, seinale ona dela deritzot, erdian oreka mantentzen saiatzen garen adierazle. Gure helburua da, euskara bultzatzea eta kalitatezko kazetaritza egitea, ez politika egitea.

J.A.: Inoiz 'Anboto'-ri leporatu zaio epela dela, egur gehiago eman beharko lukeela. Inoz pentsatu duzue 'Anboto'-k berez duen indarra presio talde moduan erabiltzea?

J.G.: Sarritan herri mailako komunikabideok ez dugu daukagun indarrean sinisten. Ez gaude indar horretaz baliatzeraz ohituta. Baina, euskararekin lotutako gaietan indar handi-
goa egin beharko genuke. Gure eginkizuna dela deritzot.



Barrenkale 21 - DURANGO
94 621 61 06 - 656 415 729
www.bizibike.com

UMEAK



PATINETEAK



TOLESGARRIAK



ELEKTRIKOAK



MOUNTAIN BIKE
















> ANNE IGARTIBURU

“Bostehun ale ez dira edozer gauza, beraz, zorionak Anboto”

“Anboto astekaria niretzako garrantzitsua da, beharrezkoa eta beraz, 500 eta beste 500 gehiago”



> JOSE LUIS MENDILIBAR

“Anboto etxera heltzen zaigu eta astero irakurtzen dugu. Nire seme-alabak ere agertu dira bertan”

“Horrenbeste urte lanean jarraitzeko ahalegin handia egiten duzue. Zorionak!”

“Anboto ostiralero gustura hartzen dudana zerbait da”

“500 ale osatzera doan egunkariak sekulako urratsak egin ditu. Horra iristea bakarrik oso garrantzitsua da”



> MAIALEN IRIARTE

“Elorrion bizi arren, ez naiz bizkaitarra. Anboto, ingurua ezagutzeko tresna moduan hartzen dut”

“Atzeko orrialdetik hasten naiz irakurtzen, jende bitxi samarra elkarrizketatzen duzuen horretatik”



> ANDONI AIZPURU



> MAIDER UNDA

“Anbotok gauza asko esan nahi du, gure kultura eta gure ingurua”

“Nik Anboto daukat atzean, beraz, ni inguratzen nauen eta barruan sartzen nauen astekari bat da”



> IGOR ELORTZA

“Bost urte eta erdi egin nituen Anboton zuzentzaile, edo nik esaten dudana moduan, zuzentsore”

“Beti pentsatu dut urte amaieran urtekaria beharrean, abenduaren 28an ‘Urtikaria’ kaleratu beharko genukeela”

“Bariku goizetan, saioetatik bueltan goizaldeko irakurketa bat izaten da Anboto”

“Durangaldeko euskarazko komunikabide bakarra izateaz gainera, astero informazio txukuna helarazten digu”



> UNAI ITURRIAGA

“Anboto astekaria paregabea da bertako errealitateari buruzko informazioa barrutik kanpora zabaltzeko”

“Zorionak Anboto zure 500. alean”



> MIGUEL ZUGAZA

500
XZU

**Jaialdian,
kamisetak
salgai 5€**




[1. ALEA]

Anboto berririk berri



[2003]

[2007]



[2005]





“Orain dela hamar urte egin nintzen Anbotoko Laguna taldeko kide, proiektuari bultzada bat emateko asmoagaz”

> **ARANTXA MAIZTEGI**
Anbotoko laguna



“Erazen sasoian hasi nintzen harategiko publizitatea jartzen, eta ondoren, Anboton. Euskara bultzatzea da helburua”

> **JUAN GALLASTEGI**
Anbotoko iragarlea

“Uste dot, betikoa ahaztu barik, sareko Anboto izan beharko litzatekeela erronketako bat. Zorionak Anboto!”



> **IZASKUN ELLAKURIAGA**
Erazeko zuzendari ohia

“Barikuetan Anboto etxerik etxe banatzen dut. Horrela, niretzako dirutxo bat irabazteko aukera daukat”



> **AMAIA BASETA**
Banatzailea



“Eraz aldizkaria martxan jarri genuenean, dirua faltan, baina ilusioa soberan geneukan”

> **INMA EGUEN**
Erazen sortzailea



“Eraz 1993ean sortu zenetik 2013ra hogeitau urte pasatu dira ibilbide bera lantzen. 500. alea poztekoa da, beraz, zorionak!”


> **GORKA BARRUETABEÑA**
Barbaro

“Anbotok duen zabalkundeak adierazten du Durangaldean txertatuta dagoen komunikabide bat dela”



> **IDURRE MAORTUA**
Anbotoko kudeatzaile ohia

“Erazetik Anbotora salto egiterakoan ilusio berriztu bat sortu zen eskualdekako proiektuak bultzatzeko”



> **MIKEL IRIZAR**
Topaguneko presidentea



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Gizarte zerbitzuak - Kirol instalazioak - Behargintza
Okupazionala zentroa - Zabor bilketa - Euskera
Kontsumitzaileen bulegoa - Tokiko agenda 21

**“egunero eskualdeko
zerbitzuak hobetzen”**

Bizikletei pedalak eragiten hasi, dantza jauziekin jarraitu

Ezkurdin hasiko den bizikleta martxagaz hasiko da zapatuko jaia. Durango eta Iurretatik ibilbidea egin eta gero, dantza ikuskizunen txanda izango da.

> AMAIA UGALDE

Hamar kilometroan Durango eta Iurretako hainbat paraje bizikletaz zeharkatzen hasiko da zapatuan 500. aleko jaia. Ezkurdin ekingo diote ibilbideari 10:30ean, eta Aramotz, Arandia, Kurutziaga eta San Fausto auzetatik pasatuko da, besteak beste. Adin guztietako pertsonen egiteko moduko martxa izango da.

Ezkurdin hasi, eta Ezkurdin amaitu. Plazara gerturatu ahal musika eta jai giroa igarriko dituzte txirrindulariek. Oilasko errearen usaina ere egongo da, eta kopaua egiteko aukera. Eguerdiko 12:00ak aldera dantza ikuskizunak hasiko dira Ezkurdin: De Norte a Sur, Kriskitin eta L'Atelier dantza taldeek eskainiko dituzte emankizunak, beraz,

hainbat dantza estiloz disfrutatzeko aukera egongo da. Eguraldiak laguntzen badu, Ezkurdin bertan izango dira emanaldiak; osterantzean, Andra Mariko elizpean.

Kriskitin dantza taldeak Euskal Herriko hainbat txokotako dantzen moldaketak eskainiko ditu. Gipuzkoako agurra, Durangaldeko dantzari dantza, Sagar-dantza, Lanestosako kalejira eta Iparraldeko inauterietako

dantzak hartu dituzte oinarri, eta horien moldaketekin egin dituzte koreografiak.

Andaluziako folklorea lantzen duen De Norte a Sur taldekoek ere, betiko dantzen aldean, zerbait berezia prestatu dute zapatarako, tartean, *sevillana heavy* estiloko musikagaz. Bilbori eskainitako *Neska polita* piezagaz ere dantzatuko dute.

Dantza ikasleen flashmob-a Amaitzeko, L'Atelier dantza eskolako ikasleek flashmob bi eskainiko dituzte: batean, 3 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoek parte hartuko dute, eta bestean, 8 urtetik gorakoek. Koreografia horiek Dantzaren Nazioarteko Egunerako prestatu zituzten, eta modan dauden hainbat abestigaz osatu dituzte.

De Norte a Sur, Kriskitin eta L'Atelier dantza taldeek dantza emankizunak eskainiko dituzte Ezkurdin



Hainbat dantza estilotako ikuskizunak izango dira De Norte a Sur, Kriskitin eta L'Atelierren eskutik.



Durangoko alde zaharretik Kantubira, bazkalurretik eztarria berotzeko

Kantutegia eskuan hartuta eta Abadiño eta Zornotzako bertsolari gazteekin tabernaz taberna ibiltzeko aukera egongo da, 13:00etik bazkalordura arte

> A.U.

Euskal kantutegiko abestiekien gozatzen duen aukera polita izango du zapatu eguerdian; Kantubiran, bertsoak eta abesti ezagunak tartekatuta, bazkalurreko poteoa egongo da Durangoko alde zaharretan.

Kantulagun ekimena gidatzen duten Ugaitz Catalan eta Beñat Aiartza izango dira abestiz abesti joateko arduradunak. Bertsoan, berriz, Abadiño bertsolari eskolako Aitor Bizkarra eta Txaber Altube, eta Zorno-

tzako Ander Gerrickaetxebarria ibiliko dira.

Hilero-hilero Berbarok eta Plateruenak antolatzen duten ekimena da Kantulagun. Lagunarteko giroan euskal kanta ezagunak abesteko hainbat lagun batzen dira kafe antzokian, eta kalera ere irten dute noiz edo noiz, Catalanen eta Aiartzaren laguntzagaz. Zapatuan, 13:00 inguruan hasiko dute abesti erronda. Horretarako, Ezkurdin batuko dira lehenengo, eta hurreratu gura duen guztiak edukiko du

aukera Durangoko alde zaharretan tabernaz taberna kantuan ibiltzeko.

Bazkaria eta ekitaldia

Ospakizunekin jarraitzeko, 14:30 inguruan izango da jatordua, Plateruenean, eta bertan jarraituko dute arratsaldeko ekitaldiekin ere. Bazkalostea Oxabi taldeak girotuko du, eta 17:00 aldera, *Anbotoren* 500. aleko ekitaldi nagusia izango da. Eguna borobiltzeko, Luhartz eta Xabi Urriaga dj-a izango dira.

 **anboto**500. ale hau zuri
esker bete da...**500**
XZU**Maiatzaren 11n****10:30**Bizikleta festa Durangoko Ezkurditik
irtenda (Ibilbidea: Durango eta lurreta)
Argazki Rallya egun osoan zehar**12:00**Dantza saioa Ezkurdin: De Norte a Sur eta Kriskitin
taldeak. Ondoren, L'Atelierreko gazteen Flash
Mob-a. (Euria bada Andra Mariko elizpean).**Oilasko errea banatuko da****13:00**Kantubira musikariek eta
bertsolariak lagunduta, Durangoko
Alde Zaharrea zehar**14:30**Bazkaria Plateruenean | Txartelak Plateruenean,
Berbaron eta Anboton salgai
(15€ nagusiak / 10€ umeak)**15:00**

Umeentzako ludoteka

Oxabi taldeak bazkalostea girituko du**17:00**

Anbotoren 500. alearen inguruko ekitaldia

20:00

Luhartz

23:00

DJ Xabi Urriaga

Zatoz gurekin ospatzera!

Herririk herri

> DURANGO

Pasaguneak zabaltzen hasi dira trenbidean

Eusko Trenbide Sareagaz akordioa lotu du udalak; pasaguneak udarako zabalik egotea itxaroten dute

> MARKEL ONAINDIA

Asteon hasi dira trenbidean hiru pasagune berri egiten. Joan zen astean polemika piztu zen, hainbat herritar pasagune bat zabaltzen saiatu ostean. Ekimen hori eta egun bira, Eusko Trenbide Sareagaz (ETS) akordioa lotuta zeukala iragarri zuen Aitziber Irigoras alkateak. Horren arabera, ETSk bere materiala kenduko du: errailak, harriak, trabesak... Gainera, hesiak ipiniko dituzte, segurtasuna bermatzeko asmoz. Gero, udalak egingo ditu pasabide horiek oinezkoentzako erabilgarri. ETSko ordezkariak esan dute udarako pasaguneak

zabalik egotea itxaroten dutela. Honako hauek dira bide berriak: Uribarri-Landako, Matxinstar-ta-Ibaizabal eta Faustebide-Faustebekoa.

Polemika egunez egun handitu zen joan zen astean. Eguaztenean, 30 bat herritar pasagune berri bat egiten ahalegindu ziren Uribarri eta Landako artean. Eguenean, ekintzaileei elkartzatuna adierazi zien EH Bilduk, eta EAJri "utzikeria" egotzi zion: "Agerian geratu da udal gobernua kezkatuago dagoela irudikeriagaz, herritarren beharrianak konpontzeagaz baino". Barikuan iragarri zuen Irigora-



Asteon hasi dira pasabide berriak zabaltzen ETSko beharginak.

sek ETSgaz akordioa zeukala, eta tratu hori apirilaren 25ean sinatu zutela. Beraz, ekimenak erabakiagaz ez zeukala zerikusirik adierazi zuen. Baina, ekintza haserre egin zuen berba, eta Bilduri egotzi zion. Azaldu zuen

bazekiela zazpi zinegotzi ekintzan egon zirela. Haren ustez, Bilduk gurago du batzordeetan lan egin barik "agitazio eta propagandako ekintzak" egitea. Alkatearen ustetan, "30 urteko ibilbideak abala ematen dio".

PSE-EEK 22 zuzenketa aurkeztu ditu aurrekonturako

> M.O.

PSE-EEK prentsa ohar bidez iragarri du 2013ko aurrekontu zirriborroari 22 zuzenketa aurkeztu dizkiola. Sozialistek esan dute, gizarte larrialdietako egoerei aurre egin eta langabezia eta bazterkeriaren aurkako lana hobetzeko egin dituztela zuzenketa horiek. Pilar Rios ordezkaria: "Ez dugu ulertzen zelan EAJk ez duen euro bakar bat ere bideratu lana sustatzeko, ezta gizarte larrialdiko egoeretan daudenentzako partida ez handitzea ere".

EAJk martxoaren 1ean eman zuen zirriborroa; oraindino ez da bilkuran landu.

Geu Bek 10. urtemuga ospatuko du, 400 herritarren laguntzagaz

Gaur egun, 43 familiak osatzen dute Geu Be, eta 33 begirale dabilta bolondres

> MARKEL ONAINDIA

Tokiko arazo baterako, tokiko irtenbide bat. Horrela definitu dute Geu Be, ezintasun intelektu-

tuala daukaten pertsonen gabeziak betetzeko sortu zen taldea. Hamar urte dira jaio zenetik, eta data berezi hori ospatzeko, hain-

bat ekitaldi eratu dituzte. Jose Alfaro eta Amaia Baseta begiraleek, Ion Guerrero gazteak eta Carmen Gerrikagoitia gurasoak

eman zuten egitaraua aurkezteko prentsaurrekoa martitzenean. Gaur egun, 43 familiak osatzen dute elkarteak, eta 33 begirale dabilta bolondres. Aisialdian egiten dute lana, helburu bati begira, Guerrerok dioenez: "Beste edozein pertsona bezala begiratu diezagutela".

Alfarok adierazi zuen ekitaldi horietarako 400 laguntzailetik gora edukiko dituztela eta, horregatik, "elkartasun ospakizuna" ere izango dela.

Maiatzaren 22an izango da efemeridea, eta berbaldi bat egingo dute. Baina, aurreko zein osteko asteburuetan eskainiko dituzte ekintza gehienak. Lehenengo, kirol arlokoa; esaterako, 19rako martxa deitu dute. Bigarren asteburuan kulturara joko dute: 24an, tortilla txapelketa eta bertso saioa Iturriaga, Elortza, Enbeita eta Ugartetxeagaz; 25ean, Txan Magoa, bazkaria, dantzak eta kontzertuak. Motxila 21, The Autistix eta Jare egongo dira Plateruenean.

> MALLABIA

Herriko leku izenak berbagai hamabostaldi kulturalean

> A.U.

Justo Azagirrek eta Pello Mugerzak Mallabiko leku izenak batzen egin duten lanaren berri emango dute datorren egunean, maiatzak 16, Kultur Hamabostaldiaren barruan. Ia urte eta erdian jardun izan dute toponimia ikerketa egiten, eta ia 3.000 leku izen batu dituzte 106 pertsonekin egindako elkarrizketetan. Hitzaldia 19:30ean emango dute kultur etxean.

Reggae jaia, bihar

Asteburu honetan ere hainbat ekitaldi dituzte kultur hamabostaldian. Bihar, herrian konponketak egiteko auzolanagaz hasiko dute eguna; 10:00etan geratu dira horretarako. Ordu batean herri baratzten aurkezpena izango dute, eta gauean, Revolutionary Brothers reggae jaia edukiko dute Izar Berrin. Gaueko 21:00etan hasi eta lau orduz geratu barik edukiko dute musika.

Datorren asteburuan ere ekitaldi ugari izango dituzte. Barikuan, esaterako, Mendibil eta Jasokunde abesbatzek kontzertua eskainiko dute, eta zapatuan, mendi lasterke-ta herrikoia egingo dute.



Geu Be elkarteko kideak, martitzenean, euren egoitzaren aurrean.

> ATXONDO

Gazte asanblada berpiztuguran, egun osoko jaia bihar

Gaztetxean, esaterako, kontzertuak egongo dira

> JOSEBA DERTEANO

Azken aspaldian Atxondoko gazte asanblada ahuldu egin dela ikusita, gazte talde bat egoera horri buelta eman guran dabil. Bide horretatik, gaztetxea eta

bere inguruko mugimendua biziberritzeko egun osoko jaia antolatatu dute zapatu honetarako. Berpizte Eguna izenaren pean, askotariko ekintzak izango dira egun osoan. 12:00etan poteoa

egingo dute herrian zehar, eta eguerdian, 14:30 inguruan, bazkaritara batuko dira gaztetxean. Bazkalosterako igel txapelketa prestatuko dute.

Arratsaldean, trikipoteoa egingo dute, eta Herrera mugimenduak Apatako jaiei begira antolatu duen pilota txapelketako partidua ikustera joango dira pilotalekura. Zapatuko jaia musika kontzertuekin errematatuko dute gaztetxean. Lehenen-

go, 22:30ean, Pixontxis eta Luck for Dillinger taldeak zuzenean ariko dira eta, segidan, dj-en musikagaz jarraituko dute jaia.

Herrirak enkantea egingo du Bestalde, maiatzaren 17an, 19:30ean, askotariko produktuen enkantea (bizikleta, arropa, eskiak...) egingo du Herrera mugimenduak udalatxe ondoko plazan. Herritarrengandik jaso dituzten produktuak dira.

> ABADIÑO

Zelaietako espazio publikoa atseginagoa egiteko prozesuan

Bihar egingo dute auzoaren berrantolaketa parte-hartze prozesuko bigarren tailerra

> ITSASO ESTEBAN

Udaleko hiru alderdien adostasunagaz abiatu dute Zelaieta auzoko espazio publikoaren berrantolaketa parte-hartze prozesua. Berrogeita hamar auzotar bertaratu ziren apirilaren 24ko aurkezpena, eta ekainera

arte, fase bitan burutuko dute prozesua: diagnostikoa eta ekin-tza proposamenak. Bihar goizeko tailerrean, mugikortasun orokorra eta generoa landuko dituzte, esaterako.

Zelaieta auzoko espazio publikoa “zelan egin atseginagoa

eta zelan hobetu dezakegun, horretarako zer aukera, zer muga, eta zer baliabide dauzkagun”, aztertuko dute, prozesuan parte hartzen duten herritarrek.

Arkitekturaren eta ingeniari-tzan diharduen Urak Bide taldea dabil Zelaietako prozesua dinamizatzen. Kimetz Munitxa, Hodei Zenikaonaindia, Leire Milikua eta Aiert Buruaga teknikariek dihardute parte-hartze prozesuko tailerrak diseinatzeko, eta euren formaziotik eskaini diezaieketen informazioa herritarrei ematen: “Tresnak ematen dizkiegu parte-hartzaileei, herri ikuspegi batetik euren hausnarketak egin ditzaten”.



Urak Bide-ko lantaldea, hurrengo tailerrera aurre lana egiten.

“Kale atsegin batek onurak ekarriko lizkioke herriko komertzioari ere”

> ITSASO ESTEBAN

Jendea zer aurreiritzirekin hurreratu da tailerrera?

Kimetz Munitxa: Lehenengo tailerrean, indar handiko aurre-

iritzi batzuekin egin genuen topo. Tabernariak, esaterako, beldur dira kotxeak eta aparkalekua kenduz gero, negozioa galduko ote duten. Aurreiritzi horri buel-

ta eman gura diogu guk. Izan ere, uste dugu bizi handia duen kale atsegin batek (umeak jolasean, gurasoak, jendea elkartzen, berbetan... dagoen kale batek), onurak ekarriko lizkiokeela herriko komertzioari ere.

Zelan hartu izan dira orain arte hirigintzari buruzko honen moduko erabakiak?

K.M.: Eraikuntzaren eta zabal-kundearen loraldian bizi izan gara, eta gauzak diseinatzerakoan legedia bete arren, ez da gehiegi pentsatu jendearen ikuspegian. Egunerokoaren eta bizitzaren eskaletatik kotxeenetara pasatu da kasu askotan. Eta horrela ez da sortzen, esaterako, auzoetan bizi den jendea elkartzeko espaziorik: kaleak hustu egin ditugu. Horri buelta eman, eta kaleak biziberritzea da helburua, herriak biziagoak izatea.



Leire Milikua eta Kimetz Munitxa

Tailerretako bat umeekin egingo duzue, Ikuspegi aldatuta horren adibide.

K.M.: Bai, eta oso pozik gaude eskolan asko inplikatu direlako umei zuzenduriko tailer horiekin. Eskolako orduetan, frontoian egingo dituzte saioak. Astebete iraungo duen prozesu horregaz, umeak espazioaren diseinuarekin ohitzea gura dugu. Jolasgune bat diseinatuko dute.

Leire Milikua: Udalak gordeta dauka jolasleku bat atontzeko diru-atal bat 2014rako, eta hainbatean, tailer horretan diseinaturiko proiektua gauzatu ahal izango da. Bigarren eta hirugarren zikloko 100 ume parte hartuko dute tailerrean. Egia esan, ez gabilta ezer asmatzen: pedagogo italiar batek badauka lan bat eginga, eta liburu bat kaleratuta horri buruz: *Haurren hiria* izenekoa. Bertan egiten duena da, parametroa aldatzea, eta umea hartzea herri edo hiriaren diseinua egiterakoan ardatz. Horren atzean dagoen ideia da, kale hori ume batentzako proposa eta

atsegina bada, beste guztiontzako ere hala izango dela.

Beharbada, kotxea etxe parean aparkatu gura duenak ez du berdin ikusiko.

K.M.: Hori da saihestu gura dugun eztabaida. Saiatuko gara jendeari beste aukera batzuk aurkezten. Kontua ez da “kotxea bai” edo “kotxerik ez”. Egon litezke kale batzuk oso astiro ibiltzekoak; edo kotxeen zirkulazioa baimenduta egon arren, kaleen diseinuak oinezkoari eman diezaioke lehentasuna. Orain, kotxearen baimenagaz dabil oinezkoa. Horri buelta eman gura diogu, eta lehentasunak aldatu. Horretarako hirigintza diseinua baldintzak aldatu behar dira.

Inon ipini dira praktikan aipatzen dituzuenak lako ereduak?

K.M.: Bai, Holandan, Alemanian, Suedian eta beste hainbat lekutan duela 40 urtetik dabilta horrelako politikak jorratzen.

L.M.: Beste eredu horiek ezagutarazi gura ditugu, hain zuzen.

Gerbasen kalejiragaz, domekan abiatuko dituzte San Trokaz jaiak

Txistulariekin kalejira, 12:00etan; eta ondoren, dantzarien saioa izango da

> I.E.

Domekan ospatuko dute Zelaieta auzoko San Trokaz jaien barruko lehenengo ekitaldia: Gerbas jaietako pertsonaiagaz, kalejira egingo dute jaien hasiera iragarri txistulariek. Eguaztenean dute, baina, Zelaietako jaietako egun nagusia: meza, eta ezpatadantzari eta gorularien dantzaldia izango dira egun horretan, 12:00etatik aurrera, San Trokaz

plazan. Eskuz binakako sarike-taren finalak jokatu dituzte 18:00etan, trinketea; eta Zirkin taldearen erromeriagaz borobilduko dute jaietako egun nagusia.

Maiatzaren hirugarren eta laugarren asteburuetarako ere egitarau zabala daukate: Oskorri eta Willis Drummond musika taldeen emanaldiak, esaterako.



lazko San Trokaz eguneko ezpatadantzarien saioa.

Eguaztenean ospatuko dute jaietako egun nagusia: meza eta ezpatadantzarien eta gorularien saioa izango dira

Udalekueko begiraleen lan poltsa zabaldu du udalak

> I.E.

Uztailerako antolatu dituzten udalekueko begiraleen lan poltsa osatu gura du Abadiñoko Udalak. Udalak jakitera eman duenez, Abadiñoko gazteek edukiko dute udalekueko lan egiteko lehentasuna, baina adin nagusi diren Durangaldeko neska-mutilentzat ere zabalik dago zerrenda. Maiatzaren 17ra arte, Traña-Matienako Errota kultur etxean edo Zelaietako Udal Mediatekan eman daiteke lan poltsan izena. Eskabide orria eta curriculum aurkeztu behar dira.

Bestalde, maiatzaren 17ra arte luzatu dute 12 eta 17 urtekoentzako udalekueko parte hartzeko epea.

Udalak kreditua ematen duten bankuak lehenetsiko ditu

> I.E.

Komunikabideetara bidali duen oharrean adierazi du Jose Luis Navarro alkateak, “herriko enpresei laguntzeko konpromisoa hartzen duen banketxera” aldatuko dituela udalak bere banku eragiketarak. “Herriko enpresak finantzatzeko prest agertzen den erakundea” lehenetsiko duela iragarri, gutuna bidali diete banku eta aurrezki kutxei.

Bankuek euren taldeko Abadiñoko eta Elorrioko enpresa biei kreditua emateko behar diren neurriak har ditzala eskatu diote San Eloy taldeko langileek udalari: “Lantegiek bizirauteko eta 210 lanpostuak ez galtzeko funtsezkoa da finantzazioa”.

> DURANGALDEA**“Gizarte zerbitzuak bermatzeko” aurrekontua, Amankomunazgoan**

Gizarte zerbitzuetarako 2,8 milioi euro bideratzea proposatu du EAJk

> MARKEL ONAINDIA

Atzo iluntzean egin zuten Amankomunazgoan 2013ko aurrekontua onartzeko osoko bilkura. *Anbotoren* gaurko edizioa ixtear zela, PSE-EEko Fernando Castilok EAJren proposamenaren aldeko jarrera zeukan; gehiengoa lortzeko bidean, beraz. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek azaldu zuen “gizarte zerbitzuak bermatzeko” aurrekontua zela aurkeztutakoa. Atal horretarako 2,8 milioi euro bideratzea proposatu zuen EAJk, aurrekontu osoaren %42,8. Izan ere, 6,6 milioikoa da aurrekontua. Gizarte larrialdietako laguntzak, droga-menpekotasunen prebentzioa eta neguko aterpea dira gizarte zerbitzuetako atal batzuk, esaterako.

Euskara sustatzeko 120.000 euro bideratu gura dituzte, ia baino %41,6 gehiago. Atletismo pistarako kopurua ere %38 handitzeko asmoa dute, aldageletako obretarako. Gainera, BTT zentroarako 60.000 euro gordeko dituzte. Castilok (PSE-EE), aldeko jarrera azaltzeko, esan du gizarte arreta mantentzea oinarritzak dela. Aurrekontu egokia dela dio.

Euren kritikagaz hasteko, esan zuten ez zaiela iruditzen serioa maiatzaren 9ra arte gaia ez lantzea bilkuran. Gai-

nera, ez dute prozesua gogoko: “EAJk ez du herritarren proposamenak ezagutzeko ahaleginik egin”. Euren ustez, Aldundiaren ereduari jarraitzea proposatu du Amankomunazgoak –Aldundiak gizarte ongizatera 144.000 euro gutxiago bideratuko dituela gogoratu dute–. Zaborrak batzearen gaian, zerbitzua hobetzeko eta “zero zabor”-aren ildotik jotzeko proposamen zehatza egin dutela aurreratu dute.



Bilduko alkate eta zinegotziak, Zaldibarren, atzo eskainitako prentsaurrekoan.

> ZALDIBAR**Euskara Biziberritzeko Planaren aurkezpena****> I.E.**

Euskararen erabilera bultzatzea jomuga duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztuko dute, maiatzaren 15ean, Zaldibarko udaletxean. Eguaztenean, 19:00etan, udal txeko atarian egingo dute aurkezpen ekitaldia, eta planaren helburuen eta ekintzen berri emango dute bertan. Gainera, herriko abesbatzaren emanaldia izango da ekitaldian, besteak beste.

Ekitaldira hurreratzeko asmoa dutenek Udalaren Euskara Zerbitzura deituta edo eguen@zaldibar.org helbidera idatzita jakinarazteko eskatu dute udaleko arduradunek.

Otsailean onartu zuten aho batez Zaldibarko Udalaren 2013 eta 2016 bitartean euskararen normalizaziorako jarduna gidatuko duen plangintza hau. Iazko udazkenean egin zituzten batzarretan, herritarren ekarpenekin osatu zituzten plangintzaren oinarriak.

Emakumeentzako jabekuntza ikastaroa eskainiko du udalak

Lau egunetan egingo dituzte ikastaroaren saioak

> I.E.

Maiatzaren 14an, 21ean eta 28an eta ekainaren 4an egingo dituzte jabekuntza ikastaroaren saioak. Zaldibarko Udalak antolatu du, eta emakumeei zuzendurikoa da *Sentimenduek nahasten gaituztenean* izenburuko ikastaro hau.

“Norbanako eta talde moduan emakumeak ahultzen” dituzten sentimenduak aztertu eta horiei aurre egiteko moduak landuko dituzte lau saioetan. Era berean, emakumeen jabekuntzarako lagungarri

“Norbanako eta talde legez emakumeak ahultzen” dituzten sentimenduak aztertuko dituzte saioetan

diren “sentimendu positiboak” baliatzeko teknikak ere jorratuko dituzte parte-hartzaileek.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hala eskatzen dutenentzako haurtzaindegi zerbitzua egongo da saioek irauten duten orduetarako.

Feminismoaz gaztetxean

Zer kontatu dizute feminismoaz? izenburuko berbaldia eskainiko dute, bestalde, Zaldibarko Gaztetxean. Bihar, 11:00etatik 14:00etara izango da saio hori.

“Bizi garen jendarte matxista etenbarik dabil feminismoa gutxiesteko mezuak botatzen”, dio berbaldiaren aurkezpenerako testuak. Hain zuzen, mezu horiei kontrajarritako ideiak eskainiko dituzte bihar Gaztetxean, eta feminismoaren teoria eta ekintzarekin lotutako beste hainbat gai ere aztertuko dituzte ikastaro horretan.

Bilduk ez ditu onartu aurrekontuak, “ardura politikoagatik”

Bilduren ustez, EAJk ez du herritarren proposamenak ezagutzeko ahaleginik egin

> M. O.

Bilduk prentsaurrekoa eman zuen atzo goizean Zaldibarko udaletxean, Amankomunazgoko gobernu taldearen aurrekontu proposamena ez duela onartu azaltzeko. Hainbat alkatek eta zinegotzik parte hartu zuten: Arantza Baigorri eta Carmen Sampedro Zaldibartik; Endika Jaiok Mañaritik; Rosa Elizburuk Atxondotik; eta, Eider Uribe Durangotik. “Ardura politikoagatik” ezin dituztela aurrekontuak onartu adierazi zuten.

Euren kritikagaz hasteko, esan zuten ez zaiela iruditzen serioa maiatzaren 9ra arte gaia ez lantzea bilkuran. Gai-

“Orain arteko jarrera eta funtzionamendu arbitrarioaren kontra gaude”, esan dute Bildukoek

nera, ez dute prozesua gogoko: “EAJk ez du herritarren proposamenak ezagutzeko ahaleginik egin”. Euren ustez, Aldundiaren ereduari jarraitzea proposatu du Amankomunazgoak –Aldundiak gizarte ongizatera 144.000 euro gutxiago bideratuko dituela gogoratu dute–. Zaborrak batzearen gaian, zerbitzua hobetzeko eta “zero zabor”-aren ildotik jotzeko proposamen zehatza egin dutela aurreratu dute.

“Jarrera arbitrarioa”

Baina, Bilduk dio EAJk ez duela eurek akordioetara heltzeko asmorik. “Orain arteko jarrera eta funtzionamendu arbitrarioaren kontra gaude”, esan dute. Bildu Durangaldeko lehen indar politikoa dela ohartarazi dute, eta EAJk ez duela hori errespetatzen kritikatu dute. “Legegintzaldi hasieran, EAJk boterea mantentzearen egindako boto trukea salatu genuen, eta orain ere, salatzen jarraitzen dugu”.

> IURRETA**12.500 euro bideratuko dira hezkuntzarako laguntzetara****> AITZIBER BASAURI**

Herriko familiei seme-alaben hezkuntzagatiko gastu orokorrak ordaintzen laguntzeko 12.500 euro erabiliko ditu udalak. 2012-2013 ikasturteko ikasleen artean banatuko du diru hori, eta maiatzaren 24ra arte egin leike eskabidea udaletxean edo kultur etxean.

Ikastetxe publiko edo pribatuan seme-alaba ikasleak dituztenekin egin dezakete eskaria, honako adin tarte hauen arabera: 0-2 urte (Haurreskola), 100 euro; 3-5 urte (HH), 20 euro; 6-9 urte (LHko 1. mailatik 4.era), 30 euro; 10-12 urte (LHko 5. eta 6. maila), 45 euro; eta, 13-16 urte (DBHko 1. mailatik 4.era), 75 euro.

2012-2013 ikasturtean Iurretan erroldatuta egon beharko dira ikasleak, eta denpora tarte horretan eskolatzea mantendu; horretarako irakasle, eskolako organo edo hezkuntza administrazioek egindako eskaerak betez.

Mozioa onartu dute toki administrazioa defendatuz**> A.B.**

Euren egituraketa burutzeko, autonomia erkidegoei aukera zabalagoak ematea eskatuko die udalak Espainiako Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari. Jaurlaritzari, ostera, Udal Legea egin ahal izateko “akordio zabala lortzeko ahalegina”, eta, toki administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunerako Lege Aurreproiektuan euskal erakunde sarearen foro berezitasuna islatzeko lan egitea; EUDELeke ere parte hartzea gura dute.

PSE-EEK babestu du EAJren mozio hori. Bildu abstenitu egin da, testu hori atzera botatzea eskatzeko Legebiltzarrean lortutako “akordio zabala” defendatuz. PPK kontra egin du. Aurretik mozioa aurkeztu du, baina, toki erakunde eskuduntzak murriztearen kontra egin dute gainerakoek, udala erakunde gertukoena dela gogoratuta.

> ELORRIO

Udaleko gestioaz eta eskainitako zerbitzuez inkesta egingo dute

Udalak inkesta egingo die 300 herritarri; ekainean egitea aurreikusi dute



300 herritarri inkesta egingo die udalak, eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan.

> MARKEL ONAINDIA

Udalak inkesta bat egingo du telefonoz 300 herritarregaz. Helburua da, udalak berak eskaintzen dituen zerbitzuez eta bere gestioaz galdetzea, elorriarren iritzia jakitea. Udal gobernua kudeaketarako ardatz estrategikoak zehaztu ditu, eta horren inguruan herritarrek daukaten asetze maila aztertu gura dute.

Zuhurtzia ekonomikoa, garden-tasuna, segurtasuna, hezkuntza eta kultura daude, besteak beste, ardatzen artean. Zerbitzuetan, garbitasuna, kirolguneak eta parkeak izango dira aztergai, adibidez. Inkestak ekainean egitea aurreikusi dute, Ana Otadui alkatearen berbetan.

Tokiko Gobernu Batzordean onartu dute egitasmoa, EAJk eta

PPk. Carlos Garciak (PP) adierazi du, tresna oso eraginkorra dela zertan asmatu den eta zertan ez jakiteko. Bildu abstenitu egin da; Idoia Buruagaren ustez, herritarrekin ardatzak zehaztu beharko lirake lehenik. "Ardatz estrategikoak zeintzuk diren euren kabuz erabaki dituzte, eta gero herritarrei gogobetetasuna galdetu nahi diete. Hori onartezina da".

Murrizketak berbagai, Kainaberaren berbaldi zikloan

> M.O.

"Krisi ekonomikoak eta azkenaldiko erabaki politikoek zuzenean eragin diote ongizate gizarteari. Erreformak, murrizketak, hipotekaren legea...". Hori diote Kainaberako kideek aurtengo *Maiatzeko Hitzaldiak* berbaldi zikloa aurkezteko prentsa oharran. Azaldu dute eskubide sozialen murrizketak jazo direla egoeraren ondorioz. Horregatik, gai horien inguruan egingo dituzte berbaldiak. Guztiak Iturri kultur etxean izango dira, 19:30ean hasita.

Maiatzaren 16an izango da lehenengo saioa, eta Xabier Mendizabal gonbidatu dute. Institutu publikoetako zuzendarien elkarteko kidea da, eta LOMCE legeaz egingo du berba. Etxebizitza eskubideaz eta kaleratzeaz jardungo dute hilaren 23an, Stop Kaleratzeak taldeko Salvador Gonzalezegaz. Azkeneko berbaldia Juan Luis Uriak emango du, hilaren 29an. Osasun eskubidearen aldeko Osalde elkarteko presidentea da Uria, eta eskubide hori hartuko du ahotan.

> OTXANDIO

Garraio publiko eraginkorra eskatuko dute erabiltzaileek

> J.DERTEANO

Durango-Gasteiz autobus linea erabiltzen duten erabiltzaileek "garraio publiko eraginkorra" eskatuko dute gaur, 17:30ean, Otxandioko plazan eskainiko duten prentsaurrekoan. Arabako Aldundiko kontzesioa da linea hori, eta Alsak

"erabateko autonomiaz" kudeatu dezakeela salatu dute, ordutegia, prezioa eta abar euren irizpiden arabera ezarrita.

Autobus zerbitzua "orain 15 urtekoa baino txarragoa" dela diote (puntualtasun eza, beteta datorrelako kanpoan geratzea...), eta "honi autobusen egoera eskasa gehitu behar zaio". Kontzesio hori laster bukatuko denez, "inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu Arabako eta Bizkaiko Aldundien inplikazioa zerbitzu hau diru publikoz kudeatzeko".

> GARAI

Udalekuetan izena emateko aukera, hilaren 22ra arte

> M.O.

Garaiko Udalak udalekuak antolatuko ditu aurtien ere uztaile-rako. Dagoeneko badago udalekuetan izena emateko aukera; maiatzaren 22ra arte ipini dute epea. Hiru urtetik hamahiru urtera arteko umeek parte hartu ahal izango dute.

Euskara ahoan, etxean eta kanpoan. Lelo horregaz sustatu dituzte udalekuak. Horrez gainera, aurreratu dute astelehenetik barikura bitartean garatuko direla ekintzak, 09:00etatik 13:00etara. Txangoren bat eginez gero, 17:00ak arte luzatuko dute ordutegia.

Interesdunek udaletxean eman behar dute izena. Herrian erroldatuek 50 euro ordainduko dituzte, eta erroldatu bakoek 80. Familiako ume bat baino gehiago apuntatuta, kopuru horiek merkatuko dira.

> BERRIZ

Antzinako soloko tresnekin erakustaldia, Andikoan

Bihar iluntzean Donien Atxa jasota, asteburuen Asentzio jaiak ospatuko dituzte Andikoan

> AMAIA UGALDE

Aurtengo Asentzio jaietarako erakustaldi berezia prestatu dute Andikoako gazteek: antzinako tresna zaharrek soloko lanak egiten saiatuko dira. Burdinaregaz, areagaz eta narragaz jardungo dute, eta bien bitartean, beharren kronika ber-

tsoz egingo dute Xabier eta Miren Amurizak.

Bihar iluntzean Donien Atxa jaso eta txapligoak botata hasiko dituzte Andikoako jaiak. Domeka izango da egun handia. Soloko erakustaldiaz gainera, meza eta Iremiñe taldearen dantza emanaldia izango dituzte goizean. Arratsaldeko 17:30ean, proba egingo dute Andikoako 800 kiloko harriagaz: astoa eta hiru karretero zortzi gazteren kontra. Gero, bolo txapelketa edukiko dute.

Hilaren 18an afaria edukiko dute auzotarrek, bertsolari eta trikitilariekin.

Soloko erakustaldiaren kronika bertso bidez egingo dute Xabier eta Miren Amurizak

Udalekuetarako begirale bila dabil Pagotxa elkarteak

Euskara maila eta begirale titulua izatea dira, besteak beste, bete beharreko baldintzak

> A.U.

Uztailean udalekuetako begirale izan gura dutenei deialdia egin die Berrizko Pagotxa aisialdi elkarteak; maiatzaren 24ra arte aurkeztu daitezke curriculumak.

Udaleku irekiak uztailearen 4tik 24ra egingo dituzte Berrizen. Pagotxa elkarteak izango da udalekuen arduraduna, eta begirale bila dabil. Begirale iza-

teko baldintzak 18 urtetik gorakoa izatea, euskara maila ona eta begirale titulua edukitzea dira. Horrez gainera, Pagotxa elkarteko kideek kontuan hartuko dute berriztarra izatea, esperientzia edukitzea, eta hezkuntzagaz lotutako ikasketak edukitzea.

Curriculumak pagotxakulturelkartea@gmail.com helbidera bidaltzeko deia egin dute.



> DURANGALDEA ASTEON**Elikadura burujabetzari buruzko berbaldea, maiatzaren 16an**

Elikadura burujabetza eta klase-sindikalis- moaren papera izeneko berbaldea emango dute datorren egunean Rita Martufik eta Paul Nicholonek. Martufi Munduko Foro Sozialaren ordezkaria da FAOren aurrean, eta Nicholson Vía Campesina eta EHNE Bizkaia-ko kidea. LAB sindikatuak antolatu du hitzaldia, eta Durangoko Hizkuntza Eskolan izango da, 19:00etan.

Artile-tailerra, euskaraz praktikatzeko

Berbalagun egitasmoaren barruan, artile-tailerra antolatu dute maiatzaren 15erako. Artilea kardatzen ikasi ondoren, artilea feltro bihurtzen ikasiko dute, eta feltroagaz egin ahal diren eskumuturrekoak eta beste bitxi batzuk egiten ikasiko dute. Parte hartu gura duenak 639 400 789 telefonora deitu beharko du.

Garaiko jubilatuen bazkaria, San Isidro egunean

Datorren eguaztenean urteroko zita edukiko dute Garaiko jubila- tuek. Eguerdiko 12:00etan meza eduki eta gero, 14:00ak aldera baz- karitarako batuko dira Herriko tabernan. Bazkariko txartelak 25 euro balio du, eta izena emateko azken eguna maiatzaren 14a izan- go da.

Kurutziaga ikastolako 1969ko kintoen bazkaria

Ekainaren 8rako bazkaria anto- latu dute Kurutziaga ikastolako 1969ko kintoek. Tabira Etxean izango da bazkaria. Parte-har- tzea baieztatzeko azken eguna maiatzaren 28a izango da. Bazka- rian izena emateko unai@insec.es helbidera idatzi daiteke, edo 610 22 42 23 telefonora deitu.

> IZURTZA**Garauntzako etxebizitzaren lehiaketa Busti Lehor-en proiektuak irabazi du**

Herritarren iritzia aintzat hartu du udalak erabakia hartzeko orduan

> JOSEBA DERTEANO

Garauntzan eraikiko dituzten 14 etxebizitzaren inguruan udalak abiatu duen ideia lehiaketa Busti Lehor-en proiektu arkitektoni- koak irabazi du. Erabaki hori hartzeko batzarra egin aurretik, orain asteburu bi, herri galdeke- ta egin zuten finalistek gainean herritarrek zuten iritzia jasotze- ko. Ondoren, maiatzaren 2an,

udal arduradunek osatutako epaimahaia azken erabakia har- tzeko batu zen. Horretarako, iriz- pide bi erabili zituzten. Batetik, herritarren iritzia aintzat hartu zuten; bestetik, proiektu bakoit- zaren hiru alderdi nagusiak puntuatu zituzten: proposamen arkitektonikoa, energia eragin- kortasuna eta jasagarritasuna. Azkenean, Busti Lehorren

proiektu arkitektonikoak jaso zuen puntuaziorik altuena.

Funtzionaltasunean, ingur- ruagaz duen erlazioan eta ener- gia eraginkortasunean jaso du irabazleak puntuaziorik altue- na. Atal horretan azpimarratze- koak dira berokuntza zoru erra- diatzaileagaz izango duela eta biomasa galdara zentralizatua. Isolamendu termiko handia du.



Izurtzarrek euren iritzia eman ahal izan zuten apirilaren 27ko herri galdeketa.

> MAÑARIA

Askondoko koban topatutakoak berba egingo dute egunean.

Askondoko koban aurkitutakoa azalduko dute Aste Kulturalean

Ekintza ugari prestatu dituzte astelehenean hasi eta domekara bitartean

> MARKEL ONAINDIA

Astelehenean hasiko da Maña- riko Aste Kulturalean. Ekintza ugari prestatu dituzte hurrengo domekara bitartean, eta XVIII. Elikadura eta Landare Azokagaz emango diote amaiera. Eskain- tzaren artean, esanguratsua da egunean egingo dutena: As-

kondoko koban aurkitutakoaren berri emango dute arkeologo eta ikerlariak. 19:30ean hasiko da berbaldea hori, liburutegi zahar- rrean. Diego Garate eta Joseba Rios arkeologoek gidatu zuten azterketa, eta ondorioztatu zuten bertako margoak duela 25.000 urtekoak direla. Aztarna zaha-

rrenak, oster, Neanderthal sa- soikoak. Adituen ustez, ikerketa aldetik koba garrantzitsua da.

Bestalde, martitzenean erleen inguruko berbaldea egongo da 19:30ean. Hilaren 17an bertso afaria egingo dute, eta 18an Ki- rikiño abesbatzaren udaberriko kontzertua.

**Beti dago
lehen aldi bat
edo zertarako...**

Ezberdin jatera ausartzeko.
Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai;
erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez.
Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea.
Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako
lehenbiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerentarako balio du

eroski.es

EROSKI online

zurekin

> MUSIKA



Krome



Raxfer

Durangaldeko lau musika talde gazte Plateruenerako finalean

Krome, Raxfer, Kilauea, eta Doktors Klub taldeak ailegatu dira Durangaldeko I. Maketa Lehiaketaren finalean. Maiatzaren 17an Plateruenera joko dute

> ITSASO ESTEBAN

Eskualdeko musika eszenaren erakusle izan da Abadiño, Iurreta, Durango eta Zornotzako udalek aurten lehenengoz antolatutako Durangaldeko I. Maketa Lehiaketa. Datorren barikuan, Durangoko Plateruenera egingo dute lehiaketaren finala, eta sari banaketa ekitaldia.

Eskualdeko bederatzi taldek jardun dute lehiaketan, eta lau aukeratu ditu epaimahaiak Pla-

teruenerako final horretan jotzeko: Iurretako Krome, Zornotzako Raxfer, Elorrioko Kilauea eta Durangoko Doktors Klub. Doakoa da finaleko kontzertuetarako sarrera, eta kalitate handikoa kartela: Durangaldeko musika taldeen aniztasunaren isla izango da emanaldia, eta beraz, ezin saihestuko hitzordua Durangaldeko musikazaleentzat.

Lehenago Second taldean jardundako 17 eta 19 urte bitarteko

bost iurretarek duela urtebete inguru sortu zuten Krome taldea. Hardcore estiloko musika egiten dute, eta bateriaren eta ahotsaren indarra azpimarratu dituzte taldekideek eurek, taldearen indargune nagusi bezala. Lehenengo aldia dute honen moduko lehiaketa batean, eta esan dutenez, "sorpresa handia" izan da finalean ailegatzea.

Zornotzar bat eta zaldibartar bi batzen ditu 2008an Zornotzan

sorturiko Raxfer taldeak. Lehiaketetan lehenago ere jardundakoak dira: Berrizko Aldapa lehiaketan, edo Durangoko Rock Izar Eskolakoan, esaterako. Barrikuko kontzerturako "gogotsu" daudela diote. Ez da lehenengo aldia Plateruenera joko dutena, baina aukera ahal beste aprobetxatzen saiatuko dira, seguru. Zuzenekoak dira Raxfer taldearen indargune nagusia.

2011ko irailean *Kilauea Rock* diskoa grabatu zuen Elorrioko Kilauea laukoteak ere joko du Durangaldeko Maketa Lehiaketaren Plateruenerako finalean. Azken urte bietan 70 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte, eta denbora horretan, gainera, zazpi-zortzi kanta berri konposatzeko ere atera dute denbora.

Eskualdeko bederatzi taldek jardun dute lehiaketan, eta lau aukeratu dituzte Plateruenerako finalerako

Country doinuak jotzen dituen Durangoko Doktors Klub boskotea ere hautatu dute finalerako. Finalean ailegatzeagaz "harrituta, eta oso pozik" daudela diote taldekideek. Belar fardoetan jesarrita agertzen dira oholtzara, eta zuzenekoaren zein jotzen duten musika estiloaren "originaltasuna" uste dute egin ahal izan zaiola epaimahaiari deigarri. Kanta zaharrak zein berriagoak joko dituzte finalean.



Kilauea



Doktors Klub



Durangoko Poliklinika estreinatu berri dugu, **DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO** berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.

EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenarekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitekeen klaustrofobia sententzia saihesteko.

MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEAN!



Zatoz eta ezagutuz

Intxaurren kalea, 19. DURANGO
(karmeldarren komentu zaharrean)



Tel.: 94.466.86.68
cddurango@gruposcanner.biz

> **BERBALDIK**

Metalen Aroari buruz jarduteko, lau berbaldi Durangoko Museoan

Atzo izan zuten Arkeologia eta Historia zikloaren barruko lehenengo hitzaldia

> **ITSASO ESTEBAN**

Historiaurrearen aldi gertukoena: Metalen Aroa izenburuko zikloaren barruan, lau berbaldi eskainiko du arkeologia eta historiari buruzko Durangoko zikloak. Atzo eman zuten lehenengo berbaldia, eta maiatzaren 16an, 23an eta 29an ere izango dira beste hiru berbaldi, 19:00etan, Durangoko Museoan.

Datorren egunean, *Metal Aroen garapena Euskal Herrian: faseak eta aldaketak* izeneko hitzaldia eskainiko du Aranzadi zientzia elkarteak Sonia San Josek. Metalurgiaren sorrerak

zela eragin zuen gizataldeen antolaketa, bizitokiaren banaketa, arlo ekonomikoan edota hileta errituetan azalduko du San Josek berbaldi horretan.

Hirugarren berbaldia, AGIRI Arkeologia Elkarteak Juan Carlos López Quintanarena izango da. *Las prácticas funerarias durante la Edad de los Metales. Monumentos megalíticos y cuevas sepulcrales en el área de Urdabai* izeneko hitzaldia eskainiko du.

Maiatzaren 29an, Aranzadi zientzia elkarteak Xabier Peñalverrek jardungo du Durangoko Arte eta Historia Museoko hitzorduan. *El hábitat y el mundo funerario durante la Edad del Hierro en Euskal Herria*. Besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzaren garapena eta teknika metalurgikoak hartuko ditu hizpide Peñalverrek.

GEURE DURANGALDEA

San Agustin kulturgunea



**ARANTZA ARRAZOLA
MAIDER LARRAÑAGA**

Helduentzako pailazoak

Kultur kudeaketaren misterioak behin baino gehiagotan komentatu ditugu zutabetxo honetan, sarri ez dakigula zergatik proposamen batzuk funtzionatzen duten eta besteak ez; noiz jendea jakitun dagoen edo ez, zeintzuk ote diren ekuazio honetako aldagaiak... baina, argi dagoena da, gurea ez dela zientzia zehatza.

Azkenengo ezusteko pozgarria Topaklown jardunaldiekin jaso dugu. Aste Santuko egunetan klowngintza lantzeko jardunaldiak antolatu genituen San Agustinek eta Ganso & Cia hemengo konpainia egoiliarak. Hasiera batean, egitasmo interesgarri baina apala; emaitza ikusita, denborarekin sendotu zitekeena. Eta hara non, lehenengo saikeran ia-ia goia jo dugu!

Hain gutxietsitako pailazo profesionaleri zuzendutako formazioa eta oporraldia uztartu nahi izan genituen. Aurreikusitako lau ikastaroei beste bi batu genizkien, eta, hala ere, jendea etortzeko gogoz gelditu zen.

Bertaratutako irakasle eta parte-hartzaileak umorearen profesionalak izanik, aukera aprobetxatu eta egunero pare bat antzezlan programatu ziren. Eta hala, egun euritsuei ilunabar koloretsuak margotu genizkien, ikusle mordoxka erakarriz.

Ia konturatu gabe, Topaklown sortu dugu, jaiegunetarako kultura eta aisiarako tresna. Ezagutu duzuenok, jakizue datorren urtean ere hor izango gaituzuela; oraindik zer den ez dakizuenok, jakizue datorren urterako aukera berriak lantzen hasita gaude. Pailazo on bat ikusi nahi? Bihar, Pepe Viyuela zazpietan eta gurean.

> **MUSIKA**

Trio Gombau taldea, Zornotzako Eleizetan musika jaialdian, bihar

Dudeako San Migel basilizian joko du biolin, txelo eta piano hirukote horrek, bihar, 20:00etan hasita

Ganbera musikaren bost kontzertu eskainiko ditu Zornotzako Eleizetan musika zikloak. Maiatzean denak. Feten Feten taldeak zabaldu zuen joan zen zapatuan jaialdia, eta bihar izango da hurrengo hitzordua. Gombau taldeko hiru musikariek joko dute Dudeako San Migel basilizian, 20:00etan, bihar.

Klasizismo garaiko, Erromantizismoko, eta XX. eta XXI. mendeko kanten erreperitorioa joko dute

Erdi Aroko musikaren alorrean esperientzia handia duen talde batek joko du maiatzaren 19an

Kantabriako Carlos Benito de la Gala biolinistak eta Alberto Gorrochategui Blanco txelistak, eta Carlos Galán Lago pianista asturiarrak osatzen dute Gombau taldea. Klasizismoko, Erromantizismoko, eta XX. eta XXI. mendeko piezen erreperitorioa daukate prestatuta.

Maiatzaren 19, 24 eta 26an izango diren beste hiru kontzertu ere badauzkate lotuta Eleizetan musika zikloan.

Erdi Aroko musikaren alorrean esperientzia handia duen taldeak joko du maiatzaren 19an, Bernagoitiko San Miguel elizan: *La caracola de Ulises. Un viaje por la cultura mediterránea* emanaldia eskainiko dute Luis Delgado, Cesar Carazo eta Jaime Muñoz musikariek.

Khantoria hirukoteak maiatzaren 24an, eta Bios Ganbera Orkestrak maiatzaren 29an, joko dute Zornotzako Eleizetan musika jaialdiaren barruan.

> **DANTZA**

Cesc Gelaberten koreografia lana, Elorrioko Arriolan

Maiatzaren 17an, 22:00etan jardungo du Cesc Gelabert dantzari kataluniarrak, Arriolan

Cesc Gelabert dantzari kataluniarraren koreografian oinarrituriko *Cesc Gelabert V.O.* + ikuskizuna eskainiko du Gelabert Azzopardi Companyia de Dansa taldeak datorren barikuan, Elorrioko Arriolan.

Bakarkako hiru lan eta orain urte batzuk sortu zituen hainbat piezaren berrinterpretazioak eskainiko ditu ikuskizun horretan Gelabert dantzariak. Azken urteetan hainbat dibulgazio programatan jardun du dantzariak, eta ekimen horietan bildutako esperientziatik, iruzkin laburrak eskaintzen ditu ikuskizunean:

Dantzari buruzko iruzkin laburrak eskaintzen ditu Gelabertek ikuskizunean: iruzkin pertsonalak, kasu



obraren erreferentziak, iruzkin pertsonalak, esanahiari zein dantzari buruzko iruzkin orokorrak eskaintzen ditu Gelabertek. Borja Ramos barakaldarrak konposaturiko musika dauka ikuskizunak.

1969tik bizitza guztia diziplina horri lotuta eman du Gelabert bartzelonarrak. 80ko hamarkadaz geroztik, Lydia Azzopardi dantzariarekin sorturiko konpainiagaz dihardu.

hitz
liburudenda

artekalea 14
durango
94 681 07 76
info@hitzliburudenda.com

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

MAIATZAK 15 19:00etan
GEU BE: 10. URTEURRENA
Behar berezidun jendearen zinea. Doan.

MAIATZAK 16 19:30ean
DF BERTSOZALE ESKOLA
JULIO SOTO bertsolariaren ahotik.
Izen-ematea: 10 euro.

MAIATZAK 17 22:00etan
MAKETA LEHIAKETA
SARI BANAKETA. Doan.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ENCERRONA
PEPE VIYUELA
Maiatzak 11 • 19:00

URTAROEKIN JOLASTUKO DUGU
KANTINELAS TEATRO
Maiatzak 12 • 17:00 / 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO URBALA

> PILOTA

Federazio “moderno, hurreko eta erakargarria” dute helburu

Fernando Azkarate buru duen taldeak Euskadiko Pilota Federakuntzarako hautagaitza aurkeztu du; Bizkaiko eta Arabako federazioen babesu du



Fernando Azkarate erdian, bere hautagaitza osatzen duen taldeagaz.

> JOSEBA DERTEANO

Hasita dago Euskadiko Pilota Federakuntzarako hauteskunde prozesua, eta *Euskal pilota bideratuz* leloagaz, Fernando Azkarate (47 urte, Elorrio) presidentegai duen taldearen aurkezpena egin zuten joan zen barikuan, Kurutziaga hotolean. Bizkaiko eta Arabako pilota federazioetako presidente Jose Manuel Fuentesek eta Fernando Palaciosok euren babesu eman diote Azkarateren hautagaitzari, eta aurkezpenean izan ziren.

Federazioak ente “moderno, garai berrietara egokitua, hurrekoa eta erakargarria” izan behar duela adierazi zuen Azkaratek. Tokian tokiko federazioekin “hartu-emanak estutzeari” garrantzi handia eman zion, emakumearentzat “ateak zaba-

lik dituen” federazioa gidatuko duela adierazi zuen, eta euskal selekzioaren ofizialtasuneruntz “urratsak egiten” jarraitzeko asmoa erakutsi zuen.

2010etik hona federazioaren aurrekontua erdira jaitsi dela jakinarazi zuen Azkaratek, eta 2013ra begira “ezingo dela mirari handirik egin”. Bide horretan, jorratuko dituzten finantziabide batzuk zerrendatu zituen: federazioaren marka ustiatzea, babesleen bila ahaleginak bibidertzea...

Azkenik, presidentegai izateko ardura zergatik onartu duen galdetuta, ez zegoela bere asmoen artean adierazi zuen: “Tal-dean sartzea onartu nuen, baina ikasteko helburuagaz. Buruan ez neukan presidentegai izatea. Denbora aurrera joan ahala, nire

lankideek animatu egin ninduten, eta azkenean, onartu egin nuen”.

ORGANIGRAMA

- **Presidentea:** Fernando Azkarate
- **Presidenteordeak:** Garbiñe Usarralde eta Unai Alzibar
- **Diruzaina:** J.A. Iñurriagarro
- **Kirol koordinatzailea:** Kepa Arroitaurregi
- **Erreminta arloa:** Jesus Perez
- **Nesken paleta goma arloa:** Josu Oleaga
- **Esku pilota arloa:** Garbiñe Usarralde
- **Pilotako federazio delegatua:** Jaime Otxoa
- **Zesta punta:** Yoni Amboage
- **Frontenisa:** J.A. Celada

> PILOTA

Bi hiruren kontra, tartean Mikel Goñi dela

San Trokaz trinkete txapelketako finalaurdenak jokatuko dituzte gaur, 20:00etan, Tornosolo trinketean. Aurten, esperientzia berri bat probatu eta bikote bat hirukote baten aurka lehiatuko da: pareta Inchauspe eta Harismendi Ipar Euskal Herriko bikoteak osatzen du; hirukotea, ostera, Gandiagak, Gordonek eta Goñik. Bikotea da faborito.

> FUTBOL KANPUSA

Txanda berri bat ireki dute Abadiñon

Abadiño Kirol Elkarteak 6 eta 12 urte bitarteko gazte-txoentzako (2001-2006 urte artean jaiok) futbol kanpusa antolatuko du bigarren bider. Ekainaren 24tik uztailearen 13rako hiru txandak beteta daude, baina berri bat sortu dute uztailearen 15etik 21era. Izen-ematea www.abadinoke.eu webgunean edo telefono bidez egin daiteke: 663 024 782.

> MENDI BIZIKLETA

Tabirako MTB martxarako izen ematea hasita

Ekainaren 30ean Tabirako jaien harira antolatuko duen bigarren MTB martxarako izen-ematea hasi du Durango MTB Sapubike klubak. Euren webgunean egin daiteke izen-ematea: www.sapubike.com. Aurten, 400 parte-hartzaile hartzeko dute helburu. Mugarra inguruan egiteko ibilbide bi prestatuko dituzte.

> AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Moraza
· Domekan, 18:00etan, Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño - Berriatuko
· Domekan, 17:00etan, Astolan

Berriz - Errigoiti
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

> ARETO FUTBOLA

MAILA GORENA

Sasikoa B - Sestao B
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

Presion Break - Askartza Claret
· Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Gu Lagunak - Sapuberri
· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA; BIGARREN FASEA

Mendibelitz - Guerto Barakaldes
· Zapatuan, 17:15ean, Landako kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO ERREGIONALA - KANPORAKETA (gizonak)

Anbotopeko - Baiki Portugalete
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Julza-Zaldua - Portugalete
· Zapatuan, 17:30ean, Zaldirako kiroldegian

> PILOTA

SAN TROKAZ TXAPELKETA - FINALURREKOAK**Promesak:**

- Arabiourrutia-Izurieta / Albizu-Pujana

- Ugalde-Ugalde / Lopez-Iraizoz

· Barikuan, 18:00etan, Zelaletako pilotalekuan

Kadeteak:

- Peña-Mendia / Egiguren-Erauskin

- Arrizabalaga-Urizar / Gisasola-Etxebarria

· Zapatuan, 17:30ean, Zelaletako pilotalekuan



Maiatzaren 22tik ekainaren 26ra
Asteazkenero. 18:00-20:30
DURANGON
656 738 472 - 600 611 601
www.on-egin.eu

Udabari honetan:

Aldatu zure gorputza barrutik hasita

Zugan antsietatea eragiten duten faktoreak kudeatzeko eta **noiz eta zer jan nahi duzun erabakitze**ko tresnak emango dizkizun **IKASTAROA** proposatzen dizugu.

Kontzientzia irabazi, **pisua galdu**



> TXIRRINDULARITZA

Elorrioko harbideak erabakiko ditu Euskadiko txapelkunak

Iurretan hasi eta amaituko den lasterketa Elorrioko harbide bitan sartuko da



Txirrindulariak Elorrioko harbidean, iazko Bizkaikoloreak lasterketan.

> JOSEBA DERTEANO

Zapatuan IV. Bizkaikoloreak Klasika lehiatuko dute Durangaldean. Euskadiko txapelak egongo dira jokoan emakumeen kadete, junior eta elite mailetan.

Lasterketa Iurretan hasi eta amaituko da. Kadeteek 44 kilometroko ibibideari aurre egingo diote 14:30etik aurrera. Elite mailakoek 16:15ean hasiko dute

lasterketa, eta Eubara joan-etorria egin eta Iurretara itzultzen direnean (19. kilometroan) junior mailakoak batuko zaizkie Traña-Matienara bidean. Handik, Apatara eta Elorriora joango dira. Elorrioren dago aurtengo nobedade nagusia. Urtero zeharkatzen duten San Agustingo harbideari (400 bat metro) beste bat gehitu die aurtien Iurretako

Emakumeen Bira Ziklismo Elkartek, hain zuzen, kanposantu inguruan dagoena (200 bat metro). Junior eta elite mailakoak itzuli bi emango dizkiote zirkuituari eta, beraz, birritan zeharkatu dituzte harbideak. Handik helmugara 10 kilometro eskas geratuko direnez, faboritoak galtzadetan saiatuko dira erritmoa bizitu eta tropela apurtzen. Oso garrantzitsua izango da harbideetara sartu aurreko kokapena.

Durangaldeko taldeei dago kienez, CAF Engineering taldeko Ziortza Isasi eta Ainara Sanz juniorrek aurrean ibiltzeko aukerak dituzte. Bizkaia-Durango elite mailako "talde indartsua" ekarriko du Jon Elorriaga zuzendariaren berbetan, eta Euskadiko Txapelketa irabaztea dute helburu. Ane Santesteban, Dorleta Eskamendi, Anna Sanchis... Denak dira sasoiaren dauden txirrindulariak. Okerrena da, ez direla esprinterrak.

Adrian Sainz lider

Bestalde, Beste Alde Orue Eskolako Adrian Sainz 'Pipas' txapelketako lider ipini zen joan zen asteburuan Urduñan hirugarren amaituta. Beraz, datorren asteburuan elastiko horiagaz irtingo da Karrantzako lasterketan.

> ATLETISMOA

Bidezabalek berriro irabazi du Bizkaiko Txapelketa

Bidezabalek Bizkaiko klubaren arteko txapelketa irabazi du emakumeetan zein gizonetan joan zen asteburuan. Emakumeek bederatzigarren bider segidan irabazi dute txapelketa, eta gizonen hirugarren urtez jarraian. Beraz, Bizkaiko klubetan erreferente izaten jarraituko dute beste urtebetez. Bestalde, Durango Kirol Kluba hirugarren amaitu zuen emakumeetan.

> EXTREME MAN

Salouko proba irabazi du Fradesek

Joan zen asteburuan Salouko (Katalunia) Extreme Man proba irabazi zuen Mugarra triatloi taldeko Gurutze Frades iurretarrak. Igeriketa saioaren ostean, bigarren tokian hartu zuen bizikleta. Aurretik zihoana harrapatu, atzean utzi eta lider ekin zion korrikako tarteari. Korrika, alde handitza lortu zuen. Hurrengo hitzordu garrantzitsua distantzia luzeko triatloi mundiala izango du ekainaren 1ean Belfort-en (Frantzia).

ADITUAREN TXOKOA**ENERITZ ITURRIAGA****Txirrindularitza**

Sare sozialak

Gaur egun, asko entzuten diren berbak dira 'facebook', 'twitter' eta antzekoak. Denok bizi gara mugikor edo ordenagailu eramangarri bati lotuta, bai berriak entzuteko, bai irakurtzeko edo lagunekin hartu-emanetan egoteko; modu azkarra eta erraza da. Beti pentsatu izan dut alde onak eta txarrak dituztela. Gehien gustatzen zaidan aldea da edozein kirol motaren (bai neskena bai mutilena) gaineko informazioa bertan aurkitu ahal duzula. Egunkarietan, normalean, kirol jakin batzuk agertzen dira batez ere, eta gabezia handitu egiten da emakumeen kirolean.

Sare sozialetan gustatzen ez zaidana da edonork, nor den zehaztu barik, esamesak zabaldu eta edozelako kritikak egin ditzakeela. Hau da, pertsona bakoitza mundu bat da, eta hamaika iritzi diferente sortu daitezke. Iritziak zilegi dira, jakina, bai onak eta bai txarrak, baina badirudi azken horiek modan daudela. Batzuetan, kirolariek trapu zaharrak ateratzeko darabiltzate sare sozialak, eta hortik datoz komeriak.

Azkenaldian, talde bat nagusi dabil, lasterketa guztietan garaile da, oso txirrindulari onak dituelako: bai, Sky taldeari buruz nabil. Sare sozial barik, talde horretan dena perfektua dela pentsatuko genuke, baina euren bi oilar nagusiak azkenaldian 'koko-riko' asko egiten dabilta, eta horrek, taldearen desoreka ekar dezake, baita, euren babesleen haserre ere.

Pentsatzea libre da, baita iritzia ematea ere, baina kontu eduki: "kanpaia nahi ez duenak aditu, ez dezala soka mugitu".

> FUTBOLA/ARETO FUTBOLA

Zaldua eta Abadiño, biak igo daitezke asteburuan

Abadiñok Berriatuko hartuko du etxean

Solobarrian Berriatukoren aurka bana berdindu eta Zalduak ezin izan zuen igoyerarik ospatu joan zen zapatuan. Hala ere, bi partiduren faltan bost puntuko aldea dute. Beraz, bihar Gatikan lortu dezakete igotzea.

Zalduak lortu ezin izan zue-na Abadiñok lortu dezake domekan, Berriatuko hartuko dutelako Astolan. Irabaziz gero,

bigarren urtez segidan igotzea lortuko luke. Bestalde, Durango Kulturalako infantilak Euskadiko txapelketa jokatzeko sailkatu ziren joan zen asteburuan.

Areto futboleko Presion Breakek igoera promozioa segurtatu dezake, eta Sapuberri eta Elorrio B igotzeko aukerekin daude. Sasikoa Bk eta Gu Lagunak-ek ez jaisteko borrokan segitzen dute.



Abadiñok eta Berrizek aurtien jokatu duten derbiko une bat. Zaldua Fuertes

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**anboto**
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko maiatzaren 10a
11. urtea - 500. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.**Publizitatea:** Goretti Alonso,

Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

eta Amaia Ugalde.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.**Argazkilariak:** Kepa Aginako,

Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behe • 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hasiera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoko. Trastelekuarekin. 140.000€ -tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekuak. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trastelekuak eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALEA: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekuak eta frontoia.

ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekuak eta ganbara. Ikusgarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

BASERRIAK SALGAI

IZURTZA

- Baserria salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxoak.
- ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatze. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KOMENTUKALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantzia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldea, eskegitokia, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekuak.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- IBAIZABAL: Halla, sukaldea, egongela, logela eta komuna. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- ABADIÑO-SAN TROKAZ: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta komuna. Lorategia. Trastelekuak eta garajea.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria. Egoera onean.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ELORRIO: Halla, sukaldea, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekuak eta garajea.
- ELORRIO: Berreraikitze etxea, lursailduna.
- IURRETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Jantzia eta berrikuntza askorekin.
- IURRETA: Halla, egongela, jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna duxarekin.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trastelekuak. Oso egoera onean dagoen etxea. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubietan. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- SALGAI: BASERRIA LUR EREMUAREKIN MENDATAN ETA BERRIZEN.
- SALGAI: TXALET ADOSATUA LUR EREMUAREKIN MAÑARIAN.

ETXEBIZITZAK SALGAI

MADALENA



- Pisu ikusgarriak estreinatze. 1, 2 eta 3 logela. Azalera eta orientazio ezberdinak. Etor zaitze ikustera konpromiso gabe. Garajearekin. 166.000€ -tik aurrera.

TABIRA



- Guztiz erreformatutako pisua. Kanpora ematen du. Eguzki asko eta ikuspegi ederrekin. Igogailua. 3 logela. 252.000€

SAN MARTIN ATARIA



- Erdi erreformatutako pisua. Bizitzera sartzeko. 3 logela. 2 balkoi. Kalefakzioa. Ikuspegi zabalak eta eguzki asko. 226.000€

MONTEVIDEO



- Ikusgarria. Erreformatzeko. 4 logela, 2 bainugela. Hegoaldera ematen duen balkoi handia. 300.000€

EZKI KALEA



- Erretentxuko txalet zonaldean. 90 m2. Kanpora ematen du. Eguzki asko eta ikuspegi ederrekin. Garaje-lonja aukeran. 187.000€.

Aipatutako etxebizitzek gain, Durangalde osoan etxebizitzaren aukera zabalago, 50.000euro-tik aurrera.
www.inmoduranguesado.com

ERAIKUNTZA BERRIA

- ZALDIBAR: Kurutzezar plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 104.000€. 2 logela eta 2 komun. 138.000€. 3 logela eta 2 komun. 178.000€.
- IURRETA: estreinatze. 1, 2 eta 4 logela. 2 eta 3 komun. Ganbara. Trastelekuak. Garajea aukeran. 180.000€ BEZ barne.
- IBAIZABAL: 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekuak barne. 247.000€-tik aurrera.
- MAÑARIA: Etxebizitzak estreinatze. 189.500€.
- DURANGO: ETXEBIZITZAK TERRAZAREKIN. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO: Estreinatze. 2 eta 3 logela. 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekuak.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- IURRETA: Maspe. 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Igogailua. 139.000€.
- MADALENOSTE: 3 logela, 2 komun eta egongela. Trastelekuak. 256.000€.
- TABIRA: 3 logela eta 2 komun. Ikuspegi ederra.
- ASTEPE: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekuak. 208.000€.
- MATIENA: 3 logela eta komuna. Eguzkitsua. Berriztatua. 155.000€.
- AMBOTO: 3 logela. 146.000€. Negoziagarriak.
- ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Bizitzera sartzeko prest. 116.000€.
- SAN ROKE: 3 logela eta egongela. Terraza. Trastelekuak eta garajea. Eguzkitsua. Ikuspegi ederra.
- UNTZILLATX: 108 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara.
- BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztatua. 156.000€.
- ZALDIBAR: 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 84.000€.
- BERRIZ: Berrizpeitua. 2 logela. Berriztatua. 136.000€.
- MURUETATORRE: 95 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea aukeran. 240.000€.
- ARTEKALEA: 78 m2. Erdi berria. 2 logela eta egongela. 210.000€.
- ALLUITZ: 2 logela. Ganbara. Garaje itxia. 198.400€.
- IURRETA: 3 logela eta egongela. Balkoia. 50.000€.
- EZKURDI: 175 m2. 4 logela eta 4 komun. Trastelekuak. Bizitzera sartzeko moduan. Ikuspegi ederra.
- F.J. ZUMARRAGA: 100 m2. 3 logela, egongela eta terraza. Igogailua.
- OÑITURRI: Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Trenbide. 95 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- TXATXIENA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- MONTEBIDEA: 3 logela eta egongela. Igogailua. Ganbara. 140.000€.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.
- MURUETATORRE: azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.
- TABIRA: erdi berria. Apartamentua. Terraza handia. Garaje itxia.
- DURANGO: txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.
- BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000€.

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 11n, 19:00etan,
Durangoko San Agustinen

Pepe Viyuela

Urteetan kritikaren eta ikuslegoaren babesa lortu eta gero, Pepe Viyuela berriro dabil oholtzarik oholiza 'Encerrona' eskaintzen. Ikusleak bere burua islatuta ikusteko moduko egoera barregarriak sortzen ditu agertokian harrapatuta geratu den pertsonaiak.

Antzerkia

:: DURANGO

Maiatzaren 11n, 19:00etan
Pepe Viyuela, San Agustinen.

Maiatzaren 12an, 17:00etan
Kantinelas Teatro taldearen
Urtaroetara jolastuko dugu?,
San Agustinen.

:: ELORRIO

Maiatzaren 10ean,
22:00etan, **Pisukideak**,
Arriolan.

Jaiak

:: ABADIÑO (San Trokaz)

Maiatzaren 12an, 21:00etan,
Gerbasen kalejira txistulariekin, eta dantzarien ekitaldia,
San Trokaz plazan.

Maiatzaren 14an, 14:00etan,
San Trokaz elizako kanpaien errepikaldi alaia. 18:00etan,
umeentzako jolasak.

Maiatzaren 15ean,
12:00etan, **meza nagusia**.
Ondoren, **ezpatadantzari eta gorularien dantzaldia**, San Trokaz plazan. 18:00etan,
Eskuz binakako San Trokaz sariaren finalurrekoak, Tor-nosolon. 19:00etan, **Zirkin** erromeria, Txanporta plazan.

Maiatzaren 17an, 17:30ean,
Pirritx, Porrotx eta Marimotots, probalekuan.

:: MALLABIA (Kultur Hamabostaldia)

Maiatzaren 10ean,
18:30ean, **Nola isolatu gure etxea ganoraz** berbaldia, eta
22:00etan, **Ispilua** antzezla-na, Kultur Etxean.

Maiatzaren 11n, 10:00etan
auzolana. 13:00etan, **herri baratzen aurkezpen irekia**.

17:00etan, **Orux Map (mendiko PSA)** berbaldia,
Kultur Etxean. 21:00etan,
Revolutionary brothers,
Herriko Tabernan.

Maiatzaren 12an, 19:00etan,
Tximeleta dokumentala,
Herriko Tabernan.

Maiatzaren 16an, 19:30ean,
Gure herriko toponimia berbaldia, Kultur Etxean.

Maiatzaren 17an, 20:30ean,
Mendibil eta Jasokunde
abesbatzak, Ermuko Pispilu
eta Alboka musika eskolako
Banda, Elizan. 21:30ean,
Identitario kolektiboa berbaldia, Herriko Tabernan

Dantza

:: ELORRIO

Maiatzaren 17an, 22:00etan
Cesc Gelabert V.O.+, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Maiatzaren 17an, 21:00etan
Aukeran taldearen, **Burnia**,
Zornotza Aretoan.

Berbaldia

:: DURANGO

Maiatzaren 16an, 19:00etan
Sonia San Jose (Aranzadi),
Metal Aroen garapena Euskal Herrian: faseak eta aldaketak,
Museoan.

Maiatzaren 16an, 19:30ean,
Julio Soto, Plateruenean.

Maiatzaren 16an, 19:00etan,
Elikadura burujabetza,
Hizkuntza Eskolan.

:: ELORRIO

Maiatzaren 16an, 19:30ean,
'Irakaskuntza eta Wert-en erreforma', kultur etxean.

Ate irekiak

:: DURANGO

Maiatzaren 15ean, 18:30ean
Haur Hezkuntzako goi zikloaren eskaintza azaltzeko hiztordua, Ibaizabal ikastolan.



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa: Objetivo: La Casa Blanca

Zuzendaria: Antoine Fuqua

- barikua 10: 19:30/22:00
- zapatua 11: 19:30/22:30
- domeka 12: 19:30
- astelehena 13: 19:30/22:00
- martitzena 14: 20:00

Buscando a Nemo 3D

- zapatua 11: 17:00
- domeka 12: 17:00

2. aretoa: Tierra prometida

Zuzendaria: Gus Van Sant

- barikua 10: 19:30
- zapatua 11: 19:30/22:30
- domeka 12: 19:30
- martitzena 14: 20:00

Iron man 3

- zapatua 11: 17:00
- domeka 12: 17:00

:: ELORRIO

La cocinera del presidente

Zuzendaria: Christian Vincent

- zapatua 11: 22:30
- domeka 12: 20:00
- astelehena 13: 20:00

:: ZORNOTZA

La gran boda

Zuzendaria: Justin Zackham

- zapatua 11: 19:30/22:30
- domeka 12: 20:00
- astelehena 13: 20:00

UMEEN ZINEMA

Buscando a Nemo

- zapatua 11: 17:00

Alacrán enamorado

- eguena 16: 20:00

berriak

10 urte

zatoz gurekin ospatzera

Webgune berezia:
www.berria.info/berriataldea
Izan zaitez
berrialaguna

Antolatzailea: **berria** | Laguntzailea: **hitza**

berria

hamarnaka

kontatzeokoak gara

Babesleak:




Maiatzak 10, Durango



Kontzertua

Inoren Ero Ni

Borja Estankona

22:00etan
Plateruenean

Sarrerak: Plateruenean

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat eta berrialagunentzat. Gainerakoentzat: 10 €

Oharra: Harpidedun edo BERRIALAGUN txartela erakustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.

Denborapasak

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

1	5	4	6	2	
	2		3		1
	9			4	
		1	9	2	
	7		8	1	
9			5	6	8
	6	5	1		3
7	3	5			
	2	4			5
					6



> Gaur **Udanek** 10 urte bete ditu. Zorionak etxekoan partez eta jarraitu orain arte moduan alai eta jatorra izaten!



> Domekan, maiatzaren 12an, egiten ditu urteak **Amaiak**. Zorionak aita, ama eta neba lamen partez! Musu bana!



> Zorionak aitite **Pedrito!** Besarkada handi bat Erdeillako familiaren partez!



> Zorionak **Nagore!** Gaur 16 urte bete dozuz! Oso ondo pasau eguna eta patxo handi bat etxeko danon partez!

2		7	8	4	1		
4		5					2
						5	8
5	7			3			
	6	9	8	2			
		4					6
			7		9	6	
	9		2		4		
1		6	9	3	5		



> Gure sorgintxoak urtetxo bat bete dau! Zorionak danon partez **Haizea!** Segi berdin eta mosu potolo bat, laztana!



> Ama bakarra dagoela esaten omen da, eta hona hemen gureak. Zer izango ote dute buruan? Pentsatzen duzuen baina gehiago maite zaituztegu! Musu pila eta zorionak zuen seme-alaben partez!

3		1		7			
	4				9		3
				9	2		4
			7	2			
2						5	7
3	6	1				4	
		4	7	6			
9	8						
	4				3		2



> Zorionak bikote! **Iratxek** eta **Markelek** maiatzaren 13 eta 15ean urteak beteko dituzte. Zorionak eta musu handi bat danon partez!



> **Mariana Paulistak** urteak bete zituen maiatzaren 8an. Zorionak eta bete beste horrenbeste! Mosu pila!



> Ez zara libratu eee..... Oraingo honetan zuri tokatu zaizu. Zorionak Txupikuadrin partez!!!



> Aurten, **Pedrok** gure urtebetetze ospakizunen berri izan du, eta hurreratu egin zaigu, zerbait helduko zaiolakoan... Aurrera beti Ondarru! Zorionak gure artean!



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 88 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 10**
09:00-09:00
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
ZAPATUA, 11
09:00-09:00
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
09:00-13:30
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
09:00-22:00
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
• **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
• **UNAMUNZAGA**
(MURUJETA TORRE 2C - DURANGO)
• **SAGASTIZABAL**
(ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
• **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)
• **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)
• **JAIOLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)
• **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)
DOMEKA, 12
09:00-09:00
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
09:00-22:00
• **EGAÑA** (BEKOETXE 4 - ZALDIBAR)
ASTELEHENA, 13
• **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)
MARTITZENA, 14
09:00-09:00
• **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)
EGUAZTENA, 15
09:00-09:00
• **SAGASTIZABAL**
(ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
09:00-22:00
• **BENGOA** (JOSE ANTONIO AGIRRE 1 - ATXONDO)
EGUENA, 16
09:00-09:00
• **GAZTELUMENDI** (J.A. ABASOLO 2 - DURANGO)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS DEIAK 112
GURUTZE GORRIA 94 681 09 49
OSAKIDETZA 94 600 72 00
ERTZAINZTA 94 466 93 00

> GARRAIOAK

- EUSKOTREN 902 54 32 10
BIZKAIBUS 94 448 40 80
PESA 902 10 12 10
CONTINENTAL AUTO 945 286 466

> TAXIAK

- ABADIÑO 94 681 44 70
MATIENA 606 459 988
DURANGO GELTOKIA 94 681 10 01
ELORRIO GELTOKIA 94 682 00 40
J.L. URIARTE 670 402 002
I. ESTEBEZ 670 678 273
M. GALEANO 670 409 330
IURRETA 94 620 15 65
TAXI AUZUNEA 688 618 690
BERRIZKO AUZO TAXIA 620 022 800

> EGURALDIA

9° 16° ZAPATUA ☀️

8° 15° DOMEKA ☁️

9° 19° ASTELEHENA ☀️

11° 19° ASTEARTEA ☁️

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matienea)
Eguaztetenan 10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Letxuga haritz hostoa 1 euro
Azelga 2 euro/kg
Espinaka txorta 1,20 euro/tx
Berakatz freskoa 1,50 euro/tx
Ilarrak 6 euro/kg
Tomate kontserba 3,90 euro/pt
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Gari integraleko ogia 3,30 euro

8	1	9	3	4	7	6	2	5
7	4	2	5	6	1	9	8	3
5	3	6	8	9	2	7	1	4
4	8	5	7	2	9	1	3	6
2	9	1	6	3	4	8	5	7
3	6	7	1	8	5	2	4	9
1	2	3	4	7	6	5	9	8
9	7	8	2	5	3	4	6	1
6	5	4	9	1	8	3	7	2

L	S	E	6	8	9	7	4	1
8	1	7	5	2	3	9	6	4
2	9	6	7	1	5	8	3	8
9	3	8	4	1	5	7	2	6
5	2	7	8	7	6	1	9	3
6	4	1	3	9	2	7	8	5
4	8	5	2	3	7	6	1	9
1	2	7	9	6	8	5	3	4
3	6	9	1	5	4	8	7	2

9	5	8	7	3	4	7	6	1
7	1	7	8	6	9	5	3	4
3	6	2	1	5	8	9	7	4
8	3	4	9	5	2	1	7	6
5	6	1	7	8	3	9	4	2
4	9	2	6	4	1	3	5	8
7	4	9	5	2	8	6	1	3
1	8	5	3	7	6	4	2	9
6	2	3	1	9	7	4	8	5

